SAGU KASKARINA

Behin batean sagu pinpirin bat. Egun batean, etxea garbitzen zegoela urrezko txanpon bat aurkitu zuen eta soineko polit bat erostea erabaki zuen.



Soinekoa jantzi zuen eta etxeko atarian jarri zen denei zein dotore zegoen erakusteko. Jarraian txerri potolo bat agertu zen eta galdetu zion:

- Sagutxo, nirekin ezkondu nahi duzu?
- Eta gauean zer egingo duzu? - erantzun zion sagutxoak.
- Txerriak egiten duten bezala, KURRINKA egingo dut.
- Zelako iskanbila! - esan zion sagutxoak belarriak estaliz.

Handik gutxira txakur jator bat pasatu zen sagutxoaren etxe aurretik eta galdetu zion:

- Sagutxo nirekin ezkondu nahi duzu?
- Eta gauean zer egingo duzu? - erantzun zion sagutxoak.
- Txakur formalak bezala ZAUNKA egingo dut.
- Hori zalaparta! - esan zion sagutxoak.

Handik gutxira bibote handiko katu bat pasatu zen sagutxoaren aurretik. Bazkari goxoa izan ahal zela pentsatu zuen eta horrela galdetu zion:

- Sagutxo, nirekin ezkondu nahi duzu?
- Eta gauean zer egingo duzu? - erantzun zion sagutxoak.
- Katu formalak bezala MARMAR egingo dut - erantzun zion katuak begiarekin keinu bat eginez.

LIVEWORKSHEETS

Sagutxoa beldurtuta etxera sartu zen eta katua gosez alde egin zuen handik. Hurrengo goizean arratoi lotsati bat pasatu zen sagutxo kaskarinaren ate aurretik eta liluratuta galdetu zion:

- Sagutxo nirekin ezkondu nahi duzu?
- Eta gauean zer egingo duzu? - erantzun zion sagutxoak.
- Lo eta lo - erantzun zuen arratoiak
- Ba zurekin ezkonduko nahiz.

Denbora gutxira ezkondu ziren biak eta hortik aurrera zoriontsu bizi izan ziren elkarrekin.

Erantzun galderak esaldi luzeak eginez:

1. **Zer aurkitu zuen sagutxoak?**

2. **Zer erosi zuen txanponarekin?**

3. **Zein animalia saiatu ziren sagutxoarekin ezkontzen?**

4. **Zer egin nahi zuen katuak sagutxoarekin?**

LIVEWORKSHEETS

5. Lotu gezien bidez animalia bakoitza dagokion soinuarekin:

Txerria	Marmarka
Katua	Zaunka
Txakurra	Zurrunka

6. Norekin ezkondu zen sagutxoa? Zergatik?

7. Asmatu beste amaiera bat:

LIVEWORKSHEETS